



EUROMONTANA

XI European
Mountain
Convention

2022ko urriak 25 - 26 - 27



SILAKO ADIERAZPENA

MENDI ADIMENDUNAK

Gure lurraldeak erakargarri eta
erresilienteagoak izatea, egungo
gizarte-, ekonomia- eta
ingurumen-trantsizioak ikusita

*XII European Mountain Convention ekitaldian
aurkeztuta, Camigliatello Silano-n, 2022ko
urriaren 27an*

Guk, Euromontana erakundeko ordezkariok, Sila Parke Natural eta Biosferako Erreserban bilduta, 2022ko urriaren 27an, honako hau adierazten dugu:

Nahiz eta Europako mendi-eremuak oso desberdinak diren, Europa mailan aurrean dituzten **ingurumen-, gizarte- eta migrazio-erronkek** eragina dute ez soilik eremu horietan bizi diren komunitateetan, baizik eta baita mendietako natura-ingurune aberatsean ere. Mendiko, urrutiko eta landako komunitateek, maiz, azpiegitura logistiko eta tekniko urriak dituzte zerbitzuak emateko orduan. Horrez gain, belaunaldi gazteenek askotan ez dute lan-aukera edo hezkuntza-aukera nahikorik. Urteek aurrera egin ahala, horrek aditu-jarioa eta populazioaren gainbehera ekarri ditu. Horrekin batera, garapen ekonomikoaren eta ingurumenaren babesaren arteko oreka lortzea arazo handia da eskualde askorentzat; izan ere, klima-aldaketa funtsezko sektore ekonomikotan eragiten hasi da, adibidez nekazaritzan, basogintzan eta turismoan.

Hala ere, **mendiek aukerak eskaintzen jarraitzen dute**, ez soilik mendi-eskualdeetan, baizik eta baita Europako gainerakoetan ere, ematen dituzten **zerbitzu ekosistemiko** ugariei esker. Mendiek lehengaiak ematen dituzte balio-kate zirkular eta biotikoetarako, eta funtsezko rola izan dezakete energia-trantsizioan. Elikagai osasuntsu eta onuragarriak ekoizten dituzte. **Biodibertsitate** eta **karbonoaren** gordailu garrantzitsuak dira. Azkenik, COVID-19ak eragindako krisiak aukera erakargarri berriak ekarri ditu, eta eremu menditsuetan bizi diren komunitateek horiek aprobetxatu behar dituzte. Eta, are garrantzitsuago: mendiek nortasun indartsua eta komunitate-sentimendu sustraitua dituzte, eta gazteek bertan bizi nahi dute, Euromontanak gai horri buruz 2022ko urtarrilean argitaratutako inkestak frogatzen duen moduan.

Beraz, funtsezkoa da aukera horiek aprobetxatzeko esparru-baldintza egokiak sortzea eta mendiak erakargarriagoak egitea, **eta, aldi berean, baita erresilienteagoak ere, egungo erronka sozioekonomiko eta ingurumenekoen aurrean**. Testuinguru horretan, gure "mendi adimendunaren" ikuspegia digitalizazioaren eta berrikuntza sozioekonomikoaren potentziala baliatzen duen mendia da, herriarekin estuki lotuta, eremu menditsuetan dituzten erronkak gainditzeko eta aukera berriak sortzeko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-trantsizioaren testuinguruan.

Mendi adimendunak lurralde erresiliente bihurtzen saiatzen dira, klima-aldaketa eraginetara egokituta, elikadura- eta energia-segurtasunaren alde egiteko eta ekonomia dibertsifikatua eta etorkizunera orientatua oinarritzeko.

Mendi adimendunak lurralde erakargarri bihurtzen ahalegintzen dira, lana, gazte eta helduei bizi-kalitate egokia eta biztanleekiko konexio hobe eman ahal izateko eta harreman funtzional egokiak izateko hiriguneekin.

Mendi adimendunak baliabide naturalak eta ekosistemen zerbitzuak hobetu kudeatu eta baloratzen saiatzen dira, (bereziki nekazaritzak emandakoak) biodibertsitate aberatsaren eta kulturaren babesa bermatzeko.

Gure lurraldeak erakargarriagoak izateko eta etorkizunera orientatzeko, Europako, nazioko eta eskualdeko erakundeei dei egiten diegu:

- Mendi-eremuen eraldaketa adimenduna lehentasun politiko bihur dezaten, **finantzaketa berezia eskainiz** mendi adimendunekin lotutako ekimenei.
- **Etorkizunera orientatutako sektoreak babes ditzaten eta sektore tradizionalei** (nekazaritza eta turismoa barne) **lagun diezaieten** erresiliente eta jasangarriagoak izaten, tokian oinarritutako ikuspegiak aplikatuz.
- Aitortu, baloratu eta, dagokionean, modu egokiagoan ordain ditzaten mendi-eremuetan eta oro har landa-eremuetan jatorria duten **ekosistemako zerbitzuak**.
- **Berrikuntza digitala** susta dezaten, datuetarako sarbidea eta horien kudeaketa hobetzeko esparru arautzaile egokia sortuz eta IT azpiegitura eta trebetasunen hedapen sendoa sustatuz, bermatzeko ETE eta herritar guztiek izango dutela abiadura handiko Interneterako sarbidea landa- eta mendi-eremuetan.
- **Modu biziagoan parteka ditzaten esperientzia eta jardunbide egokiak** eskualde, nazio eta Europa mailan. CAP Sarea, Landa Ituna eta landa-sare nazionalak foru egokien adibide dira, mota horretako ezagutza eta esperientziak partekatzeke.

Lankidetzaren eta ezagutzearen hedapena babes dezaten eskualde-mailan eta eskualdeen artean, eta eskualde-estrategia berri baten sorrera arindu dezaten Karpatoetan.

- **Ikuspegi parte-hartzaile berriak** hartzea babes eta erraz dezaten lurralde-politikak prestatzeko orduan, gazte, emakume eta adinekoentzako aukeretan zentratuta.
- **Komunitateei zuzendutako ekimenak** susta ditzaten, eraldaketa sozioekologikoa ahalbidetzeko mendietan, adibidez Europako Bauhaus Berria ekimenaren esparruan. Finantzaketa espezifiko ahalbidetu behar da, azkarragoak izateko mota horretako ekimenak abiarazteko orduan eta Europa mailan esperientziak partekatzeke.
- **Interakzio funtzionalak** susta ditzaten hiri- eta landa-eremuetan, bereziki hezkuntzan, mugikortasunean, nekazaritzan, zerbitzuetan, turismoan eta azpiegitura urdin eta berdeen arteko konexioetan.
- **Arrisku naturalak kudeatzeko estrategiak** ezar ditzaten eskualde-politikan, klima-aldaketaren eta beste hondamendi natural batzuen aurreko erresilientzia hobetzeko.
- **Diziplina arteko ikerketa-sareak** babes ditzaten nazio, eskualde eta Europa mailan, diziplina garrantzitsu guztien arteko lankidetzaren eta ulermena sustatzeko eta mendi-eremuen garapen adimendunarako.

Amaitzeko, gurek, Euromontanak, konpromisoa hartzen dugu gure jarduerekin planteamendu espezifikoak garatzen jarraitzeko mendi-eremuetan, honako hauen bidez:

- Politikak egiteaz arduratzen direnei eta ikerketa-erakundeei laguntzea, lurralde menditsuen eta haien balio-kateen erakargarritasunerako, jasangarritasunerako eta erresilientziarako garrantzitsuak diren **adierazle neurgarriak** identifikatzeko.
- **Ezagutza partekatzea** garrantzitsuak enplegu adimendunerako, mugikortasun adimendunerako, ekonomia adimendunerako, bizimodu adimendunerako, datuetan oinarritutako berrikuntzarako eta natura-baliabideen kudeaketa adimendunerako. Horretarako, lurralde menditsuen jardunbide egokiak hedatuko dira.
- Europako erakundeen estimulua, kontuan har ditzaten lurralde menditsuen **muga espezifikoak**, baina baita mundu-mailan aurrean ditugun erronkak kudeatu eta konpontzeko **potentziala** ere.
- Gure kideak eta tokiko eta eskualdeko agintaritzak estimulatzea, parte-hartze aktiboa izan dezaten **Landa Itunean**, eta interes-talde guztiak modu egokiagoan inplika ditzaten epe luzeko etorkizuneko ideiak sortu eta ezartzeko orduan, lurralde menditsuen garapen jasangarriari begira.
- **Europako proiektuak** garatzea, eremu menditsuen garapen adimendun eta jasangarria sustatzeko, eta, bereziki, honako hauekin lotuta: klima-aldaketa-errekiko erresilientzia, ekosistemako zerbitzuen balorazioa, mendi-ekonomia dibertsifikatuak sustatzeko trebetasunak, telelana, herri adimendunak eta landa-eremu funtzionalak.
- **Mendi Ikerketako Europako Sarea**, (Euromontana da fundatzaileetako bat) erabiltzea, mendi-eremuek aurrean dituzten erronkei begira diziplina anitzeko ikuspegiak sustatzeko eta gizarte-zientziak eta humanitateak ikerketa-politiketan hobeto integratzeko gomendioak formulatzeko.



EUROMONTANA

www.euromontana.org



@Euromontana



@Euromontana



Euromontana

Euromontana

2 place du champ de mars - 1050 Brusela - Belgika

T: + 32 2 280 42 83

Helbide elektronikoa: info@euromontana.org